



2018ko kudeaketa-plana

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. Atarikoa

2017ko urriaren 23an Gogora Institutuko Zuzendaritza Kontseiluak "2017-2020 aldiko jardun-plana: *memoria eta enpatiarako plaza publikoa*" onartu zuen, babes handiarekin eta inork kontrako botorik eman gabe. Planean Gogorak legegintzaldian egingo duen lanaren esparru orokorra, orientazio estrategikoa eta jardun-programa ezartzen dira. Guztira, 9 ekimen eta 27 proiektu daude.

Planaren helburua Gogora sortu zuen legean ezartzen diren jardun-ildo guztiak bultzatzea da; beraz, planaren bitartez lortu nahi da Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egitura eta proiektua sendotzea eta zabaltzea.

2018ko kudeaketa-plana 2017-2020 aldiko jardun-planaren ondorioa da. Hitu atal dauzka: lehenengoan lau urteko planaren indarraldiko lehen urtean egindako lanaren balantzea egiten da; bigarrenean 2018rako ezarritako helburu nagusiak azaltzen dira; hirugarrenean urtean zehar egiteko asmoa dagoen ekintzak zehazten dira, eta horien egutegia finkatzen.

Horretarako, 2017-2020 aldiko jardun-planean ezarritako proiektu-antolamendua aplikatuko da: I. ardatza: zeharkako proiektuak; II. ardatza: Memoria Historikoari buruzko proiektuak; III. ardatza: Orintsuko Memoriari buruzko proiektuak.

2018an egiteko asmoa dagoen ekimen eta proiektu guztietan ohiko zeharkako helburuak aplikatuko dira: herritarren parte-hartzea bideratzea, Memoriaren eraketan pluraltasuna islatzea, eta jarrera kritikoarekin egitea gogoeta iraganaz.

Gogora dezagun lehendakariak adierazi zuena 2017-2020 aldiko jardun-planaren aurkezpean: "*GOGORAK hasitako bide eraikitzailearekin jarraitu behar da eta akordioetan eta parte-hartze pluralean sakondu behar da geure iraganari heldu ahal izateko*".

2. 2017an egindako jarduketa nagusiak

I. ARDATZA. ZEHARKAKO PROIEKTUAK

2.1. Beste memoria-erakunde batzuekin modu sinergikoan eta osagarrian jardutea

- a. Ekaineko bileran Gernikako Bakearen Museoko Patronatuak museoa birmoldatzeko proposamena, Eusko Jaurlaritzak aurkeztua, onartu zuen. Ondoren, urrian, Xabier Irujo historialariari azalpen-hitzaldi bat proposatzeko eskatu zekiola onartu zen.
- b. Terrorismoaren Biktimen Memorialarekin elkarrizketa eta koordinaziorako espazio bat ezartzeko proposamena prestatu da; laster aurkeztuko da.
- c. Bartzelonako Unibertsitateak 2017ko azaroan antolatu duen biltzarrean harremanetan jarri gara beste autonomia-erkidego batzuetako memoria-erakundeekin: Andaluzia, Katalunia, Nafarroa eta Balear uharteetakoarekin, hain zuzen.

2.2. Gogora Instituturako ikerketa- eta artxibo-tresnak sortzea

- a. GOGORAK gaur arte dituen datu-baseak eta agiriak antolatu dira (Dspace gordailu digitala). Gainera, dokumentuen funtsa (liburuak eta ikus-entzunezkoak) katalogatu da (liburutegiak kudeatzeko Absysnet sistema).
- b. Gerra Zibilean eta Frankismoan urratutako giza eskubideen oinarritzko txostenaren lehen fasea garatu da, eta Gerra Zibilean hildako pertsonen datu-basea egin da.
- c. Euskadiko memoria demokratikoa Gerra Zibiletik gaur egunera arte berreskuratzeko asmoa duten ikus-entzunezko proiektuak egiteko diru-laguntzen deialdia egin da. Deialdiaren ebazpena eman ondoren 8 proiektuk jaso dute diru-laguntza; 73.816,48 € eman dira guztira.

2.3. Gogora Institutuaren dibulgazio-lanerako baliabideak sortzea

- a. 2017. urtean zehar Memoria Plaza erakusketa zazpi leku berritan egon da (guztira hamabostetan egon da dagoeneko). Guztira 27.500 pertsonak hartu dute parte; horietatik 4.100 DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak izan dira.
 - Getxo: martxoaren 13tik 19ra arte.
 - Lasarte: apirilaren 3tik 9ra arte.
 - Gernika: apirilaren 22tik 27ra arte.
 - Santurtzi: maiatzaren 17tik 24ra arte.
 - Portugalete: irailaren 21etik 28ra arte.
 - Sestao: azaroaren 6tik 12ra arte.
 - Barakaldo: azaroaren 27tik abenduaren 3ra arte.
- b. Erakusketa iraunkorraren proiektuaren lehen proposamenaren inguruko kontsultak egin dira; proposamena datorren urtean zehar zehaztuko da, horretarako lantalde bat sortuko baita.

II. ARDATZA. MEMORIA HISTORIKOARI BURUZKO PROIEKTUAK

2.4. Memoria Historikoaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea

- a. EAEko udalekin lankidetzan jardun da, sinbologia frankista ezabatzeko. Egindako jardue-
ren jarraipen etengabea egin da, eta sinbologia kentzeko diru-laguntza eman zaie eskatu
duten udalei.
- b. Urtarrilean Duintasunaren Kolunbarioa inauguratu da Elgoibarko Olaso kanposantuaren
inguruan; Elgoibarko Udalarekin lankidetzan egin da. Ekitaldia urtarrilaren 30ean egin
zen: 27 giza gorpuzki hobiratu ziren.
- c. Elgoibarko Udalarekin kolunbarioa mantentzeko protokoloa adostu da, eta hitzarmen bi-
dez formalizatu da.

2.5. Memoria Historikoaren egiari ekarpena egitea

- a. Hobiak ikertu eta kokatzeko EAEko plana garatu da, eta urtean zehar 5 hobi ireki dira.
 - Urtarrilaren 28a: Txaldataxur mendia, Donostia
 - Otsailaren 4a: Urkullu mendia, Larrabetzu
 - Martxoaren 25a: Legutio
 - Ekainaren 4a: Lemoatx mendia, Lemoa
 - Azaroaren 18a eta 19a: Altun mendia, Zeanuri

Guztira 9 pertsonaren gorpuzkiak aurkitu dira: 5 Zeanurin eta bana gainerako lau hobi-
tan. Pertsona horietako hiru plaka-zenbakiari esker identifikatu ahal izan dira: Pedro San
Millán Beitia, Pedro García Gil eta Isaías Rebollo Cardo, Perezagua batailoiko milizianoak.

- b. DNA bankua handitzeko proiektua abiarazi da (bi prentsaurreko: bata martxoaren 24an
eta bestea abuztuaren 2an). Urte amaierarako 200 DNA lagin egon dira eta 12 eskaera
bideratu dira (lagina jasotzeko zain daude).
- c. Erantzun egin zaie desagertutako pertsonen senideek banaka aurkeztutako informa-
zio-eskaerei. Urtean zehar 250 eskaera jaso dira.
- d. Gerra Zibilean eta Frankismoan urratutako giza eskubideen oinarrizko txostenaren lehen
fasea garatu da; txostenean Gerra Zibilean hildako pertsonen datu-basea txertatu da.
- e. Memoria Historikoaren elkarreentzako diru-laguntzak deitu dira. 27 proiektuk jaso dute
diru-laguntza; 105.000 euro guztira.

2.6. Memoria Historikoaren egiaren aitortzea

- a. Gerra Zibilean zehar bonbardatutako tokiak geolokalizatzen dituen proiektua garatu eta jendearen esku jarri da GOGORAREN webgunearen bidez.
- b. Gerra Zibileko biktimen aitortpenerako ekitaldiak egin dira, borrokaldiko gertaera gogoangarrienen 80. urteurrenaren harira. Antolatu diren ekitaldietan erakundeen eta alderdi politikoen ordezkari asko izan dira, eta garai hartako biktimak eta beren senideak ere bai; egintza horren bidez jasandako oinazearen aitortpen publikoa egin zaie.

- Martxoaren 5a. Matxitxakoko gudua oroitzeko ekitaldia Bermeon. 200 pertsona baino gehiago bertaratu ziren.
- Martxoaren 30a. Durangoko bonbardaketa oroitzeko ekitaldia. 100 pertsona inguru bildu ziren.
- Apirilaren 25a. Gernikako bonbardaketa oroitzeko ekitaldia. Guztira, 200 bat pertsona bertaratu ziren.
- Maiatzaren 24a. Euskal umeak Santurtziko portutik erbestera ebakatu zituzteneko 80. urteurrena oroitzeko ekitaldi instituzionala. 300 bat pertsona bildu ziren bertara.
- Irailaren 30a Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren baterako ekitaldia Gursko kontzentrazio-esparruan preso egon ziren EAeko eta Nafarroako 6.500 pertsonen oroimenez. Guztira, 300 pertsona inguru izan ziren ekitaldian.
- Urriaren 16a. Santoñan fusilatutako pertsonen gorazarre egiteko ekitaldia. 150 bat pertsona bertaratu ziren.

Aurreko ekitaldi horietan ez ezik GOGORA Jaurlaritzako hainbat erakundek eta sailek bultzatutako oroitzapen-ekitaldietan ere izan da.

- Apirilaren 1a. "Azazetako 16 eraildakoak" omentzeko eta oroitzeko ekitaldia.
 - Apirilaren 21a. Eibarko bonbardaketaren 80. urteurrenko oroitzapen-ekitaldien programaren aurkezpen instituzionala.
 - Apirilaren 23a. Elgetako 32 hildakoak omentzeko eta oroitzeko ekitaldia.
 - Ekainaren 4a. Omenaldia frankismoaren lehen garaian Gauegiz-Arteagan errepre-sioa pairatu zutenei.
 - Ekainaren 14a. Ugao-Miraballesko bonbardaketaren biktimak omentzeko eta gogoratze-ko ekitaldia.
 - Ekainaren 16a. Errepresaliatutako Bilboko Udaleko funtzionarioak eta langileak oroitzeko eta omentzeko ekitaldi instituzionala.
 - Ekainaren 19a. Bilbo erori zeneko 80. urteurrenko kontzertua.
 - Ekainaren 22a. Memoria Historikoaren ekitaldi instituzionala Portugaleten.
 - Ekainaren 25a. "Lauaxeta" idazlearen oroimenezko ekitaldia, Mungian, fusilatu zuteneko 80. urteurrenean.
- c. 2017ko uztailaren 28an, GOGORAREN egoitzan, Burdinazko Gerrikoa proiektua eta proiektu hori gauzatzeko erakundearteko erabakia aurkeztu ziren. Hitzarmena sinatu dute 33 udalerrik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak, Kultura Sailak eta Gogorak. Orain udalerrri bakoitzean kasuan kasu egin daitezkeen jarduerak aztertzen ari dira, eta ibilbideak markatzeko seinale komunak diseinatu dira.

III. ARDATZA. ORAINTSUKO MEMORIARI BURUZKO PROIEKTUAK

2.7. Oraintsuko Memoriaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea

- a. GOGORAK udaletan urtero Memoriaren Eguna ospatzea sustatu du. Horretarako, bere lankidetzan eskaini eta memoriarekin lotutako ikus-entzunezko baliabideak jarri ditu eskura, hala badagokio antolatu daitezkeen memoria-ekitaldietan proiektatzeko.

2.8. Memoriari buruzko ikus-entzunezko funts publikoa sortzea

- a. Biktimen lekukotasunak grabatzeko Gertu Programa zabaldu da. Urtean zehar EAetik kanpo (Bartzelonan, Galizian, Andaluzian...) terrorismoaren ondorioz hildako pertsonen senideen lekukotza berriak grabatu dira, bai eta atentatuen biktima izan diren edota mehatxuak jaso dituzten pertsonen 50 grabazio berri egin ere.

2.9. Hezkuntza-arloko ekarpenak memoriarako

- a. Hezkuntzan memoriaren dimentsio historikoa sartzeko proposamena prestatzeko lanak hasi dira.

2.10. Dibulgazioko beste jarduketa batzuk

- a. Venancio Iñurrietaren "Zutik ozta-ozta" biografia argitaratu da. Benan Oregi Iñurrietak idatzi du; "Memoriak" bildumako bigarren liburua da.
- b. Institutaren beraren lanaren eta Memoriaren inguruko politika publikoen berri zabaltzeko Euskadin egin diren beste ekitaldi batzuetan ere izan da GOGORA.
 - Urriaren 27a, Gasteiz. GOGORA Institutuko zuzendari Aintzane Ezenaroren hitzaldia Fernando Buesa Fundazioak antolatutako XV. Fernando Buesa Mintegian, gai honetaz: "Zer egin daiteke erradikalizazioa prebenitzeko? Esperientziak eta proiektu praktikoak".
 - Azaroaren 30a, Bartzelona. Aintzane Ezenaroren hitzaldia "La gestión pública de la memoria en los gobiernos autónomos" mahaian, "La hibernación de la rana. 10 años de leyes y políticas de memoria en España y Cataluña (2007-2017)" izeneko nazioarteko biltzarrean.
 - Abenduaren 14a: Eusko Gazteriaren Kontseiluaren bisita Gogoraren egoitzara eta Institutuaren lanaren azalpena gazteei.

3. 2018Ko helburu nagusiak

I. ARDATZA. ZEHARKAKO PROIEKTUAK

3.1. Beste memoria-erakunde batzuekin modu sinergikoan eta osagarrian jardutea

- a.** Gernikako Bakearen Museoko azalpen-hitzaldi berria onartzea, Xabier Irujok egindako proposamena abiaburutzat hartuta. (Lehen seihilekoan).
- b.** Terrorismoaren Biktimen Oroimenezko Zentroarekin elkarrizketa eta koordinazioa sustatzeko eremua ezartzea. (Lehen seihilekoan).
- c.** Beste autonomia-erkidego batzuetan memoriaren eremuan lan egiten duten erakundeekin kontaktua eta harremanak ezartzea. (Lehen seihilekoan).
- d.** Nazioarteko memoriaren esparruko sareekin eta erakundeekin harremanetan jartzen hastea. (Bigarren seihilekoan)

3.2. Gogora Instituturako ikerketa- eta artxibo-tresnak sortzea

- a.** Oinarrizko txostenaren azterketarekin jarraitzea eta bigarren faseari ekitea. (Urte osoan)
- b.** Aldundiek eta udalek memoriaz egindako ikerlan guztiak biltzen saiatzea, Gogorak herri-tarren esku jartzeko. (Lehen seihilekoan).
- c.** Dokumentalak egiteko diru-laguntzen deialdia prestatzea. (Lehen seihilekoan).
- d.** Gogora Institutuaren edukiak herritarren esku jartzeko prestatzea. (Lehen seihilekoan).

3.3. Gogora Institutuaren dibulgazio-lanerako baliabideak sortzea

- a.** Liburutegia eta baliabideen zentroa irekitzea. (Lehen seihilekoan).
- b.** Memoria Plaza erakusketa ibiltariaren 2018ko programa zehaztea eta gauzatzea. (Lehen hiruhilekoan eta urte osoan zehar)
- c.** Gogora Institutuaren erakusketa-proiektuari buruzko lantaldea antolatzea, behin betiko erakusketa-tokia zehaztu ondoren. (Bigarren seihilekoan)
- d.** 2019. urteko ardatz tematikoa diseinatzea; ondoren jardunaldietan, dokumentaletan eta agerkarietan garatuko da. (Laugarren hiruhilekoan)

II. ARDATZA. MEMORIA HISTORIKOARI BURUZKO PROIEKTUAK

3.4. Memoria Historikoaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea

- a. Foru-aldundiekin Memoria Historikoaren eremuan lankidetzan aritzeko proposamena prestatzea. Horretarako akordioa sinatuko dugu aldundiekin. (Lehen seihilekoan).
- b. Sinbologia frankista kentzeko lanak amaitzea, udalen lankidetzarekin. (2018an zehar)
- c. Aurkitu diren identifikatu gabeko giza gorpuzkiak Elgoibarko Kolunbarioan ehorztea. (Lehenengo hiruhilekoan)

3.5. Memoria Historikoaren egiari ekarpena egitea

- a. Desagertuak aurkitzeko Euskal Plana garatzen jarraitzea Aranzadirekin eta Biomic laboratorioarekin batera: gorpuak hobietatik atera, senideek eskatutako banakako txostenak eta DNA probak senideei. (Urte osoan).
- b. Oinarrizko txostenaren lehen fasea burutzea eta Gerra Zibilean Euskadin hildako pertsonen datu-basearekin batera aurkeztea. (Bigarren seihilekoan).
- c. Oinarrizko txostenaren bigarren faseari ekitea: gerran eta gerra ondoan preso egon ziren pertsonen datuak bildu eta datu-basean sartu. (Bigarren seihilekoan)
- d. Memoria Historikoaren arloko elkarteentzako diru-laguntzen deialdia egitea. (Lehen seihilekoan).
- e. Udalentzako diru-laguntzen deialdia egitea. (Lehen seihilekoan).

3.6. Memoria Historikoaren egiaren aitorpena zabaltzea

- a. Memoriaren ibilbideak berreskuratzea bultzatzea: Burdinazko Gerrikoa eta Gernikako ibilbidea, besteak beste. (Urte osoan)
- b. "*Gerra zibila eta emakumeak Euskadin*" gaiaren inguruko jardunaldiak antolatzea. (Lehenengo eta bigarren seihilekoan)
- c. Memoria historikoko lekukotasunak grabatzea erakusketetarako. (Urte osoan)
- d. Liburutegiaren eta baliabideen zentroaren irekiera eta funtzionamendua koordinatzea Euskadiko Artxibo Historikoarekin. (Lehen seihilekoan).
- e. Gerra Zibileko gertaera gogoangarriak oroitzeko ekitaldietan parte hartzea. (Urte osoan).

III. ARDATZA. ORAINTSUKO MEMORIARI BURUZKO PROIEKTUAK

3.7. Oraintsuko Memoriaren eremuan EAEko erakundeekin lankidetzan aritzea

- a. Memoriaren Egunerako ekintza-programa prestatzea eta adostea Eudelekin, Eusko Legebiltzarrarekin, aldundiekin eta udalekin. (Lehen seihilekoan).
- b. Udalei laguntza eta aholkuak eskaintzea Oraintsuko Memoriaren inguruko jarduketak egiteko udalerriekin. (Urte osoan)

3.8. Memoriari buruzko ikus-entzunezko funts publikoa sortzea

- a. Bakearen eta giza eskubideen aldeko gizarte-mugimenduetako pertsonen lekukotasunak grabatzea. (Bigarren seihilekoan)

3.9. Hezkuntza-arloko ekarpenak memoriarako

- a. Memoriaren dimentsio historikoa hezkuntzan sartzeko lantaldea sortzea. (Lehen seihilekoan).
- b. Memoria eta literatura gaiaren inguruko jardunaldiak egitea. (Lehen seihilekoan).
- c. Dimentsio historikoa hezkuntzan sartzeko jardunaldiak egitea. (Bigarren seihilekoan)
- d. Gogora Institutuko edukien plataforma birtuala prestatzea, gida didaktikoarekin lotuta. (Bigarren seihilekoan)
- e. Esperientzia pilotua eta proiektua hezkuntza-komunitateari aurkeztea. (Laugarren hiruhilekoan)
- f. Eskoletako eta unibertsitateetako agenteek Memoriaren Egunean parte hartzeko proposamena prestatzea. (Lehen seihilekoan).